

ELR

[IRETARGIA TA]

Iretargia ta
kanpaien barriak.
Odei-txatal batzuek.
Izar banaka bat.
Gari-alor zaarrea,
ipurtargitsuak
esmeral biztu bana
daukie bakoitzak.

Bekoki nekatua
arindu nai leuskion
ama baten antzean,
Euskal erriko gaba,
apaiz izan nai leuken
gizon onen ganean.
... Aren maitasun-pean,
neure betiko asmoz
diardut.

Barnez,
“ta urrungo mastietan,
elduko zan, oraingo,
oparirako matsa,
Olibo-ondo urrungo
aien, adar baltzetan,
gozatuz joango da
jainko egin nengiken
olio apurra...”.

Eta... ba-dirudit,
nabari dotala
buruan, Gotzaiaren
eskuen epela.

Ba-dirudit, ba-dala
olioa mirari,
mats eldua ardo gorri,
gari jasoia ogi,
t'ogi ta ardo

—nungo?...—,
altaran, ba-dala
eskuotako opari.